# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 1937

233/1995 DEKRETUA, apirilaren 11koa, Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa kudeatzeko Batzordea eta horri Laguntzeko eta Sorospena eskaintzeko Batzorde Teknikoa arautzen dituena.

Euskal Herriak betitik Hirugarren Munduari eskaini dion laguntza eta elkartasuna garatzeko laguntza-egitarau bat prestatu zuten, 1988tik aurrera, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta toki mailako beste erakunde batzuk.

Egitarau horiek martxan jarri ondoren, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa eratu zuten Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek, emandako dirulaguntzak ahalik eraginkorrenak izan zitezen. 1989ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Finantzen Euskal Kontseiluak, besteak beste, Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorretan fondo hori sortzeko partida bat ezartzeko erabakia hartu zuen. Partida horri dagokion dirutzaren %50a Eusko Jaurlaritzak ordainduko du; eta gainerako %50a Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek, Euskal Autonomi Elkarteko gastuetarako aportazioetan bakoitzarentzat jarritako koefizientearen heinean. Hortik aurrera diruizendapenak egin dira fondo horretarako urteroko aurrekontuetan. Diruizendapen horiek ejekutatzeko eskuduntza Jaurlaritzaren Lehendakaritzarena da; Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bidez egingo du hori.

Dena delakoa aginpide hori, laguntzak esleitzeak dakarren prozesu guztian instituzioek izan behar dituzten eginkizunetan lankidetza-gogoz ihardutea, bidezkotzat jo zen.

Uztailaren 9ko 411/1991 Dekretuz aldatutako urtarrilaren 30eko 18/1990 Dekretuak, helburu hori kontutan izanik, Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa kudeatzeko Batzordea eta horri Laguntzeko eta Sorospena eskaintzeko Batzorde Teknikoa sortu zituen Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean finantzatutako Programaren barruan. Instituuzioen arteko organua da Kudeatzeko Batzordea; aipatutako irizpideak aplikatzea eta horien kudeaketa zuzena erraztea ahalbideratzen du, eraginkortasunik handiena lortzeko. Helburu honek justifikatzen du, hain zuzen, aipatutako organuaren laguntzarako izango den beste organu bat sortzea.

Joandako urteetan hartutako esperientziak eta Eusko Jaurlaritzaren egituretan izandako aldaketek beharrezko egiten dute Kudeatzeko Batzordea bera eta bere eginkizunak berriro arautzea, eta bai Laguntzeko eta Sorospena eskaintzeko Batzorde Teknikoari dagozkionak ere.

Ondorioz, Lehendakaritzaren proposamenez,

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 1937

DECRETO 233/1995, de 11 de abril, por el que se regula la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo y la Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia a la misma.

El apoyo y la solidaridad históricos del Pueblo Vasco con el desarrollo del Tercer Mundo se vieron reflejados a partir de 1988 en programas de ayudas tanto desde el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales como de otras entidades locales.

Después de un periodo inicial de puesta en marcha, se estableció entre el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales un Fondo de Cooperación y Ayuda al Desarrollo que permitiera una mayor eficacia en las ayudas otorgadas. El Consejo Vasco de Finanzas, en su reunión del día 10 de octubre de 1989, adoptó, entre otros, el acuerdo de establecer en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma para 1990 una partida para la creación de dicho Fondo, a cuya dotación contribuirá de una parte el Gobierno Vasco con un 50%, y de otro lado las Diputaciones Forales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, que contribuirán al otro 50% en función de los coeficientes fijados para sus aportaciones a los gastos de la Comunidad Autónoma. A partir de ese momento, han sido consignadas en los sucesivos presupuestos anuales dotaciones para el citado Fondo, para cuya gestión y ejecución es competente la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza a través de la Secretaría General de Acción Exterior.

No obstante la citada atribución, se estimó aconsejable que el espíritu de colaboración presida todas las actuaciones de las diferentes instituciones en todo el proceso que conlleva la adjudicación de las Ayudas.

A tal fin, el Decreto 18/1990, de 30 de enero, modificado posteriormente por Decreto 411/1991, de 9 de julio, creó la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo, así como la Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia a la misma, en el marco del Programa financiado conjuntamente por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales. La Comisión Gestora es un órgano de carácter interinstitucional que permite aplicar los criterios citados y agilizar su correcta gestión, de forma que se logre la máxima eficacia, objetivo éste que justifica, asimismo, la creación de un órgano técnico que apoye al anterior.

La experiencia de los años transcurridos, así como los cambios producidos en las estructuras del Gobierno Vasco, hacen necesaria una nueva regulación de la Comisión Gestora y de sus funciones, así como las que competen a la Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, previa

1995eko apirilaren 11n egindako bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa kudeatzeko Batzordea.

1.– Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa kudeatzeko Batzordea, urtarrilaren 30eko 18/1990 Dekretuz sortutakoa, arautu egiten da.

2.– Kudeatzeko Batzordearen osakideak ondorenean aipatzen dira:

Lehendakaria: Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia edo bere ordezkoa.

Bokalak:

– Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko lehendakaria.

– Lehendakariordetzako ordezkari bat; sailburuorde maila izango du.

– Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko ordezkari bat; sailburuorde maila izango du.

– Foru aldundien ordezkari bana; foru diputatu maila izango dute.

– Garapen Lankidetzarako alorreko ordezkari bat; zuzendari maila izango du.

Idazkaria: Laguntzeko eta Sorospena eskaintzeko Batzorde Teknikoko kide bat, Kudeatzeko Batzordeak izendatuta. Hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botorik. Idazkaria urtero aldatuko da.

3.– Kudeatzeko Batzordeko kideen ordez, titularrek agertu ezin dutelako, maila bereko beste batzuk parte hartu ahal izango dute Batzordearen batzarretan.

*2. atala.*– Egitekoak.

Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa kudeatzeko Batzordearen egitekoak:

1.– Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa arautuko duten xedapenak aztertu eta horien alde agertzea. Xedapenok, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak gertatuko ditu.

2.– Dekretu honetako 3. atalean araututako Batzorde Teknikoak egindako lana, hainbat analisi eta ebaluaketari buruzkoa, gainbegiratzea; lankidetza eta garapenerako laguntzak arautzen dituzten xedapenen barruan egingo da hori.

3.– Egon dagoen aurrekontu-izendapena Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian aurkeztutako proiektuen artean banatzeko proposamena egitea.

*3. atala.*– Laguntzeko eta Sorospena eskaintzeko Batzorde Teknikoa.

1.– Laguntzeko eta Sorospena eskaintzeko Batzorde Teknikoaren sorospena izango du Kudeatzeko Batzordeak. Aurkeztutako lankidetza proiektuak aztertu eta ebaluatuko ditu, dirulaguntzak jaso dituzten proiektuen ejekuzioaren jarraipena egingo du, eta azkenik,

deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión del 11 de abril de 1995,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– La Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo.

1.– Se regula la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo, creada por Decreto 18/1990, de 30 de enero.

2.– La citada Comisión Gestora tendrá la siguiente composición:

Presidente: El Secretario General de Acción Exterior, o persona en quien delegue.

Vocales:

– El presidente de la Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco.

– Un representante de la Vicepresidencia del Gobierno con rango de Viceconsejero.

– Un representante del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco con rango de Viceconsejero.

– Un representante de cada una de las Diputaciones Forales con rango de Diputado Foral.

– El responsable del área de Cooperación al Desarrollo con rango de Director.

Secretario: Un miembro de la Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia, con voz y sin voto, nombrado por la Comisión Gestora y renovable cada año.

3.– Los miembros de la Comisión Gestora, cuando no sea posible su asistencia, podrán delegar en otra persona de igual rango su participación en las reuniones de dicha Comisión.

*Artículo 2.*– Funciones.

Corresponden a la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo las siguientes funciones:

1.– Analizar e informar favorablemente las disposiciones que regulen el Fondo de Cooperación y Ayuda al Desarrollo, elaboradas por la Secretaría General de Acción Exterior.

2.– Supervisar el trabajo de análisis y de evaluación de los diferentes proyectos realizado por la Comisión Técnica regulada en el artículo 3 del presente Decreto, en el marco de las disposiciones reguladoras de las ayudas para la cooperación y el desarrollo.

3.– Proponer la distribución de la consignación presupuestaria existente entre los proyectos presentados a la Secretaría General de Acción Exterior.

*Artículo 3.*– La Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia.

1.– La Comisión Gestora estará asistida por la Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia, que tendrá como misión analizar y evaluar los proyectos de cooperación presentados, realizar el seguimiento de la ejecución de los proyectos subvencionados, así como recabar toda

Kudeatzeko Batzordearenak diren eginkizunak zuzen betetzeko behar diren argibideak lortuko ditu.

2.– Batzorde Teknikoaren lehendakari Garapen Lankidetzarako zuzendaria izango da. Beste lau kide ere izango ditu, lankidetza alorrean adituak izango direnak. Kide horiek, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak bere proposamena egin ondoren, Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa kudeatzeko Batzordeak aukeratuko ditu. Kide horietako batek idazkari lana beteko du.

3.– Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. idazpuruko II. atalburuan organu kolegiatuentzat xedatutakoaren arabera arautuko da Laguntzeko eta Sorospena eskaintzeko Batzorde Teknikoa.

INDARGABETZE XEDAPENA

Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa kudeatzeko Batzordea eta horri Laguntzeko eta Sorospena eskaintzeko Batzorde Teknikoa sortzeari buruzko urtarrilaren 30eko 18/1990 Dekretua eta dekretu hori aldatzen duen uztailaren 9ko 411/1991 Dekretua, indargabetu egiten dira.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko apirilak 11.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

aquella información necesaria para el correcto desempeño de las funciones propias de la Comisión Gestora.

2.– La Comisión Técnica estará integrada por el Director de Cooperación al Desarrollo, que ejercerá de Presidente, y otros cuatro miembros expertos en materia de cooperación, de los cuales uno ejercerá de Secretario, que serán designados, a propuesta del Secretario General de Acción Exterior, por la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo.

3.– El funcionamiento de la Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia se regirá por lo dispuesto para los órganos colegiados en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 18/1990, de 30 de enero, por el que se crea la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo y la Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia a la misma, así como el Decreto 411/1991, de 9 de julio, que modifica el anterior.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de abril de 1995.

El lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

**1938**

234/1995 DEKRETUA, apirilaren 11koa, euskal gizataldeekiko harremanetarako organoak arautzeko dena.

Euskal Autonomi Elkarteaz Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanei buruzko maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen bidez, euskal gizataldeekin harremanak instituzionalizatzeko nahian, alde batetik, Euskal Etxeak sortu ziren, komunikaziorako lehentasunezko bide moduan; eta bestetik, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea, euskal erakundeetako eta euskal etxeetako ordezkarien bilgune moduan. Horiekin batera, Euskal Gizaltaldeen Biltzarra ere sortu zen, euskal-etxeen eta beren federazioen eta EAEko administrazio publikoen arteko harremanak lau urtean behin aztertu eta indartzeko bilgune legez.

**1938**

DECRETO 234/1995, de 11 de abril, por el que se regulan los órganos de relación con las Colectividades Vascas.

La Ley 8/1994, de 27 de mayo, de relaciones con las Colectividades y Centros Vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su pretensión de institucionalizar las relaciones con las Colectividades Vascas, además de configurar a los Centros Vascos-Euskal Etxeak como cauce preferente de comunicación, crea el Consejo Asesor de Relaciones con las Colectividades Vascas, como órgano consultivo donde se dan cita representantes de las Instituciones Vascas y de los Centros Vascos. Asimismo, instaura el Congreso de las Colectividades Vascas, foro de encuentro para analizar y dinamizar cuatrienalmente las relaciones de las Euskal-Etxeak y sus Federaciones y Confederaciones con las Administraciones Públicas de la C.A.V.